
AZTERTU TA EZTABAIDATU

Gaurko gure giro onetan, au argi ikusten dogun gauzea da: dana aztertzen eta eztabaidatzen da. Geiago oraindiño: Aztertze eta eztabaidatze onetan, sarritan, personak iraindu eta gaiztotzat artu, egiten dira.

Jokabide onetan errigintzan, politikan, diarduen gizonak eta andrak izaten dira bizienak eta ez ere du onak.

Orain urte batzuk, gitxiegi aztertzen ziran gauzak, orain oster, bear ba'da, larregi.

Arlo onetan be, dendu edo oreka egoki batera eldu bear genduke gizakiok, baiña gaisoak eurak be epea bear izaten dabe osatzeko. Antzera gaisokia dan jokera onek be astia artu bearko dau bide egokira eltzeko edo biurtzeko.

* * *

Ontzat artu ete leike aztertzeraz eta eztabaidatzeraz gizakiok daukagun aspaldiko jokera au?

Zalantza barik, ba-dauz bere alderdi onak. Ara batzuk.

Berez illunak diran arazoak, sarritan argiago ikusten dira, bakoitxari zer-pentsau emoten jakolako. Zuzentasuna billatzeko bidea ba-da aztertzea eta eztabaidatzea. Eta gaiñera, gizartean beti izaten diran gaitxak eta jokabide okerrak zuzentzeko be bidea izaten da. Azkenez, jokabide ori egokia da, pertsonak eldutasunera sartu daitezkan: Aztertzen ez dauan gizakia ez da eltzen eldutasunera.

Baiña jokabide orrek ba-ditu bere alderdi txarrak be. Ona emen batzuk: Gizakien artean asarreak eta oztasuna sortzen dira, aztertze ori nekez izaten da maitasunerako bidea, bear ba'da ondo egiten ez dalako edo ondo artzen ez dakigulako. Eta sarritan aztertze orretan ez dira bagiratzan norkien eta jazokizunen alderdi txarrak baiño. Ez da ba, azterketa utsa bakea sortzeraz eltzen.

* * *

Gaurko gizakia, aztertzeraz ta dana eztabaidatzeraz jokera ori dala-ta, minduta eta bildurtuta bizi da. Gizakiak sarritan ez dauka bizi-pozik, bere egiteak eta ekintzak gitxitan eta nekez onartzen diralako, eritxiak agertzeko be bildur da.

Benetako bakea nai ba'dogu, eta nai dogu, zuzentasunagaz eta aztertze zorrotzagaz batera, alkarreganako maitasuna ta poza bear doguz, eta orretarako bear-beareko gauzea da ekintzak dituen alderdi onak be billatzea.

Zein izan daiteke orduan urtenbidea?

Azttertze osoa ta sakona egitea: Alderdi onak eta txarrak ikusi, ondoren onak eta txarrak agertu, arazoa beste batzuk zelan ikusten daben agertu, eta, au fededunentzat, Jaungoikoaren eta Ebanjelioko Jesus'en ikuspegia billatu, aztertzen dan arazo orreri begira.

Ori orrelan egin ezkeror, aztertzea ta eztabaidatzea askoz onuragarriago da gizakia bere eldutasunera sartzeko eta alkarren arteko maitasuna sortzeko. Zuzentasunak be toki zabalagoa izango dau eta gizakien artean izan bear dan oreka ta dendua ohea izango da.

* * *

Gure kondairan aldi batzuk izaten dira jauskorrek eta beste batzuk iraunkorrek edo egonkorrek, eta olako aldiak bein bata eta bein bestea sortzen dira: Erdi-aroa egonkorra ta Ber jaiotza jauskorra, klasiku barria egonkorra eta erromantikuena jauskorra.

Gure bizitzan aldi egonkor bat izan dogu eta, batez be 1968n.urtetik aurrera giroa jauskor biurtu jaku. Eta gu, giro egonkorrean biziteko eziak izan garanak, giro jauskorrean aurkitzen gara. Eta ori gure bizitzarako oso mingarria da: Egonkor izateko eziak izan eta jauskor-giroan geure buruak ikusi.

Dana dala, giro au izan da gutzat eta ba-daukagu pozbide aundi bat be: Gure aldi onetan mundu barri bat dagoala sortzen eta guk, urrango mundu ori ohea izan daiten geure aletxua ekarri bear dogula geure bizitzan. Nekez, baiña pozez, egin bear dogu lan au.

OLAZAR'tar MARTIN'ek